



Karnabalak Oñatin



Beti esan izan dogu Oñatin **Karnabalak** eztauela aparteko ganorarik eduki. Tolo-
sa, Donostia edo Eibarrekuakin konpara-
ranta, hurrik be emun ez. Orain hala bada,
lehenago be antzera zan, itxuria. Jakiña
da Francoren diktadura-garaixan zihero
debekauta egon zirala jaixok leku guz-
tietan. Gure ume-eta gazte-denporan kar-
nabal-usain apur bat jan-kontuan bakarrik
igarten zan: Eguen Gizen egunian **Larde-
ro** egitten zan **txorixua** janaz; hürrengo e-
guten, berriz, **pellak** edo/eta **torradak** ego-
ten ziran etxerik gehixenetan; pertsona
nagusixak afari edo **frittadak** be egitten
zittuain batzuetan.



Dana dala, beste sasue batzuetan be, oraintxe letxe, gure herrixan saiaketan ei ziran karnabal edo **Aratiztietan** ondo pasaiten: hor dittugu, horren lekuko, XIX. gizaldixaren azken aldera estudiantiak ataratako kanta-papelak; edota 1928ko inñauterietarako **Mendiarrak** tituluaz kuadrilla batek plazaratu eben bertso-sortia.

Antxiñako karnabaleko fotografixak egon egongo dira, akaso, baiña momentuz eztozu askotzarik eskuratu. Oso polita eta ezagun samarra da 1915eko **abiadore-talde** txantxikuar bat hegazkin eta guzti unibertsidadeko klaustruan erakusten doskuna. Bigarren Errepublikan inguruko bakarren bat be atara geben aldizkari honetan aspalditxo. Baiña gaurko argazki bixak ezkittuan orain arte ezaguketan; elegante asko txorimalotuta dagoz **andra-gizon** [?] honeik, euren arropa, kapela eta **katamalo** bikaiñekin; atzeko puxikadunak korrientetxuago; zaldi-kotxia be dotoria da. Noizkuak ete? Ehun bat urte botako geuskie. Eta zeintzuk ete? Auskalo; jauntxo itxuria dakoi behintzat. Ia baten batek aztarranik ataraten dosten.

J. E.

Argazkixak Gereka-Tosantos famelixiak itxittakuak dira. Milla eskert!